

EH11 kolore

Euskal Herriko jendearen aurpegiak asko aldatu dira. Beste kolore bateko azala zuen norbait ikustea deigarri egiten zitzaigun, lehen, orain dela urte batzuk.

Baina orain munduko gauzarik normalena bihurtu da. Etorri dira guregana beste kolore bateko larruazalak eta beste kolore bateko kulturak. Aniztasun hori, kultura-aniztasun hori defenditzeko, euskara oinarri hartuta, EH11kolore sortu berria da. Samira Goddi da taldearen bozeramaile.



1- EH11 Koloreko bozeramalearekin hizketan

Jarraian Samira Goddi EH11Koloren ekimeneko bozeramaleari egindako elkarrizketa entzungo duzu. Entzundakoan erabaki ondorengo baieztapenak egia ala gezurra ote diren. (HH39-EH11Kolorre-1)

	EGIA	GEZURRA
EH11Kolorre ekimenaren filosofia Euskal Herrira etortzen diren guztiek euskara ikastea da.		
EH11Kolorre ekimena osatzen dutenek aniztasuna balore positiboa dela usta dute. Horixe da lotzen dituen eta ekimenaren abiapuntua.		
Arlo desberdinetatik etorritako jendeak osatzen du ekimena; besteak beste; unibertsitateko, sindikatuetoako, elkarteetako edo euskalgintzako jendeak.		
Beti ados egotea da elkarbizitzaren gakoa.		
Aniztasun horretan denetariko jendea dagoenez, elkarrizketa bilatzeko prozesu horretan gatazkak ere badaude.		

2- Elkarrizketa

Irakurri samara Goddiri egindako beste elkarrizketa bat. Erantzunak kontuan hartuta lotu bakoitzari dagokion galdera.



Samira Goddi, EH 11 Kolore ekimenaren bozeramailea.

“Euskara da aniztasun kultural eta linguistiko guztien arteko kohesiorako elementu nagusia”

Samira Goddik EH 11 Kolore ekimenaren nondik norakoak azaldu ditu eta “aurretik aniztasunaren gainean zegoen interesaren ondorio” izan dela aitortu du.

1- _____

Abenduan aurkeztu genuen, baina lehenago alor askotatik interes berdintsu bat zegoen aniztasunari balio positiboan heltzeko. Ekimenaren helburua Euskal Herriak duen jatorri askotako mosaikoa onartzea, aitortzea eta bultzatzea da, jatorri guztiak Euskal Herriko errealitate direla aitortuz eta eskubide, betebeharrak eta aukera berdintasuna aldarrikatuz.

2- _____

Gaur arte inork ez dio heldu aniztasunaren gaiari aberastasun gisa eta balio positibo gisa. Euskal Herria ez da jatorri bakarrekoa, bere ezaugarriak kontuan hartu behar dira, hau da, kanpora joan den herria da eta kanpotik etorritako jende asko dago. Honi guztiari heltzeko, beharrezko jotzen dugu etengabeko elkarrizketa eta gogoeta. Hori dena horrela planteatzen zuenik ez zegoen orain arte. Azkenean iritsi da aniztasuna modu honetan ikusteko unea. Elkarbizitzarako modelo propioa eta herri- ekimenetik abiatutakoa eratu nahi dugu, guztion parte-hartzetik egin, eta geure neurriak egokituz.

3- _____

Datozen hilabeteetan bi ekitaldi izango ditugu. Batetik, kultura- eta kirol-alorreko ordezkariak agerraldi batean beren babesa emango dute, otsailaren 16an, Bilbon. Bestetik, martxoan, lehen aipaturako gogoeta zabaltze aldera, jardunaldiak antolatu ditugu, trukerako eta esperientziak partekatzeko. Baina pixkanaka goaz, ekimena prozesu bat da. Aurkezpenaren ondoren, atxikimenduak biltzeko epea zabaldu zen. Jendea batzeko gonbita egin dugu eta erantzun horrek zehaztuko du gure norabidea.

4- _____

Bertan bizitzeak egiten gaitu euskal herritar eskubide, betebeharrak eta aukera berdintasunarekin. Ondoren, identitate kontuetan sartzen gara. Euskal herritarrak ez du zertan euskaldun sentitu, baina argi izan behar dugu guztiek osatzen dutela bertako mosaikoa.

5- _____

Bai, aniztasun kultural eta linguistiko guztien artean zubiak eraiki behar dira, guztiak batu behar dira eta kohesiorako elementu gisa euskara planteatzen dugu. In mundu osoko jendea bizi da egun Euskal Herrian eta hori guztia euskarak batu behar du, aukera-berdintasuna bermatzeko, batetik, eta hizkuntzaren sostengurako, bestetik. Denek euskara erabiltzea da, hain zuzen ere, gure abiapuntua.

6- _____

Lehenik eta behin, denon artean esfortzua eginez eta euskararen muina zabalduz; hau da, zer den euskara, nola bizi garen euskaraz, euskaraz hitz eginez, ez dakitenek euskarara gerturatzeko baliabideak jarritz... Azken batean, euskara bere osotasunean erakutsi behar da, tresna bezala eta sentimendu bezala.

A- Zer pauso emango dituzue aurrerantzean?

B- Orain arte ez da horrelakorik egin Euskal Herrian?

C- Mosaiko horretan, euskara da guztiok batzen gaituena.

D- Nola sortu zen ekimenaren ideia?

E- Eta hori nola lor daiteke?

D- Adierazpenean hauxe esaten duzue: "Euskal Herrian bizi garen guztiok gara euskal herritar, baina ez euskaldun".



3- Nondik datoz Euskal Herrira?

Jarraian ikusiko duzun bideoan Kike Amunarrizek azalduko digu nondik datozen Euskal Herrira azken urte hauetan iritsitakoak. Bideoa ikusitakoan komentatu lan taldean galdera hauek (HH39-EH11Kolare-2):

- Bideoan aipatu diren datuak eta proportzioak espero zenituzten edo harritu egin zaituztete?
- Bat datoz zuen inguruan ikusten duzuenarekin?

4- Nola hitz egiten dute?

Euskal Herriko datu orokorrak ikusi ondoren, bizi garen herrira hurbilduko gara eta bertan bizi diren etorkinen inguruko informazioa partekatuko dugu gelan. Baina hasteko, ikusi bideoa (HH39-EH11Kolare-3). Ea zein den beraien herrietako egoera!

Bideoa ikusitakoan komentatu lan taldean ondorengo galderak:

- Nongoak dira -zein herrialdetakoak- azken urteotan gure herrira etorri diren etorkinak?
- Zein hizkuntzatan hitz egiten dute? Zenbat hizkuntzatan hitz egiten da Gasteizen?
- Zenbat herrialdetako pertsonak ezagutzen dituzu pertsonalki?

Azkenik, ikusi ondorengo bideoa (HH39-EH11Kolare-4). Ea bertako protagonistek hitz egiten dituzten hizkuntzak ezagutzen dituzuen!.

5- Zer jarrera dute etorkinek euskararekin?

Orain arte etorkinez aritu gara, baina, oraindik ez dakigu beraien zer nolako bizipenak izan dituzten gure hizkuntzarekin, nolako jarrera duten euskararekiko, edo nola eta zergatik hurbildu diren euskarara.

Zuen artean ba al dago Euskal Herrikan kanpo jaiotakorik? Edo Euskal Herrikan kanpo jaiotako gurasoren bat duenik? Kontatuko al zenuke zure esperientzia?



Hurrengo bideoan ikusiko dugun pertsona kubatarra da, Eskoriatzan bizi da eta Yuli Vargas du izena. Ikusi bideoa eta ezagutu bere bizipenak! (HH39-EH11Kolore-5)

Yuliri bezala, gertatu al zaizu inoiz hizkuntza ezagutzen ez duzun herrialde batean izatea? gertatu al zaizu inoiz egoera xelebrenen bat tokiko hizkuntza ez ezagutzeagatik? Ba al daukazu horrelako bizipenik? Idatz ezazu, eta gero idatzitakoa ikaskideei kontatu.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



ERANTZUNAK

1- EH11 Koloreko bozeramalearekin hizketan

	EGIA	GEZURRA
EH11Kolore ekimenaren filosofia Euskal Herrira etortzen diren guztiek euskara ikastea da.		X
EH11Kolore ekimena osatzen dutenek aniztasuna balore positiboa dela usta dute. Horixe da lotzen dituen eta ekimenaren abiapuntua.	X	
Arlo desberdinetatik etorritako jendeak osatzen du ekimena; besteak beste; unibertsitateko, sindikatueta, elkarteetako edo euskalgintzako jendeak.	X	
Beti ados egotea da elkarbizitzaren gakoa.		X
Aniztasun horretan denetarikoa jendea dagoenez, elkarriketa bilatzeko prozesu horretan gatazkak ere badaude.	X	

2- Elkarrizketa

- 1- Nola sortu zen ekimenaren ideia?
- 2- Orain arte ez da horrelakorik egin Euskal Herrian?
- 3- Zer pauso emango dituzue aurrerantz?
- 4- Adierazpenean haxe esaten duzue: "Euskal Herrian bizi garen guztiok gara euskal herritar, baina ez euskaldun".
- 5- Mosaiko horretan, euskara da guztiok batzen gaituena.
- 6- Eta hori nola lor daiteke?